



EUSKARAZ HOBETO!

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA
2024 - 2027

• ORIOKO UDALA •



AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	5
2.- LEGE-TESTUINGURUA.....	7
3.- METODOLOGIA ETA PROZEDURA.....	9
4.- DIAGNOSTIKOA.....	11
LEHEN ARDATZA: KUDEAKETA	
BIGARREN ARDATZA: ERABILERA	
• Zerbitzu-hizkuntza	
• Lan-hizkuntza	
AMIA MATRIZEA ETA ONDORIO NAGUSIAK	
5.- 2024-2027 ERABILERA-PLAN ESTRATEGIKOA.....	23
6.- EGITURAKETA ETA BALIABIDEAK.....	31
1. ERANSKINA: LANPOSTU-ZERRENTA.....	33
2. ERANSKINA: UDALAREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK.....	35



1

SARRERA

Dokumentu honen **helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen Orioko Udalean, eta zer pauso eman behar diren erabilera indartu eta areagotzeko**. UEMArek irizpideak aintzakotzat hartu dira dokumentua idazteko. Horrez gain, Udalak aurrerantzean erabiliko dituen **hizkuntza-irizpideak** ere jaso dira dokumentuan, eranskin gisa.

Erabilera-planak kudeatzeko HPSk proposatutako metodologia eta aplikazio berriak tarteko, atzeratu egin da planaren azken lanketa eta onarpena eta, azkenean, bat egin du 86/1997 dekretua ordeztu duen 19/2024 dekretu berriarekin. Beraz, aukera izan dugu helburuak eta irizpideak eguneratzeko legeria berriaren arabera.

2023-2027 plangintzaldirako balio du dokumentu honek eta, urtez urte, kudeaketa-plan bat egingo zaio, hemen zehaztutako helburuak betetzeko ekintzak definitzeko.

Gaur egungo egoeraren ebaluazioa egiteko, udal-langileen eta erakundearen ekarpenak jaso dira eta, abiapuntu horrekin, helburu orokor batzuk jarri ditugu. Hala ere, plan estrategiko hau etengabe aberasten eta egokitzen joan beharko dugu, elkarlanean.

Orioko Udala UEMako kide

Orio herri euskalduna da (euskaldunak %75 dira; ia-euskaldunak, %11,5; eta euskaraz ez dakitenak, %13,5, 2021eko datuen arabera) eta dagoeneko bide luzea egin du euskararen sustapenean. Bide horren barruan, Orioko Udalak UEMako kide izatea erabaki zuen 2002an eta, orduz geroztik lankidetzan jardun dute bi erakundeok, bai udal-administrazioa euskalduntzeko bidean, bai herrira begirako hainbat jardueratan. **UEMAk zehaztutako gidalerroak eta oinarritzko irizpideak aintzat hartu ditugu plan estrategiko hau lantzeko orduan ere.**

EUSKARAZ HOBETO!

Plangintzaldi berri hau aldaketa handien bezperatan dator: ez dirudi ausartegia esatea adimen artifizialaren olatuak goitik behera aldatuko duela administrazioaren jarduteko era (ere) eta dagoeneko hasita gaude ikusten horren zantzu batzuk: itzulpen neuronalaren iraultza, testu-sorkuntza automatizatua, chatbot espezializatuak, espedienteen kudeaketan

aurki datorren aldaketa handia... Tresna berri horiek aukera ugari eskainiko dizkigute eta, ezinbestean, baita erronka berriak planteatu ere. Horri guztiari ere begiratu beharko diogu plangintzaldi berri honetan.

Erabilera-planari **EUSKARAZ HOBETO!** izena jarri diogu, hain zuzen ere, uste dugulako hizkuntzaren teknologia berriek ematen (eta emango) dizkiguten aukera berriak baliatu behar ditugula **euskaraz gehiago eta hobeto** egiteko. Orioko Udalak dagoeneko euskaraz funtzionatzen du neurri handi batean, baina badugu zer hobetu darabilgun hizkuntzaren kalitateari dagokionez. Hori hobetzea izango da plangintzaldi honetako erronka nagusia.

Aldi berean, aldarria ere bada **EUSKARAZ HOBETO!** leloa, udal-langileei eta oriotarrei adierazteko Udalak euskara erabili nahi duela herritarrekiko harremanetan eta barruko jardunean. Hori dugula xede. Alegia, aspaldiko kantak zioen bezala, nahi dugula «lan eta bizi euskaraz». Horretara goaz.

Orioko Udaleko Euskara Zerbitzua

2

LEGE-TESTUINGURUA

EAEko **Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak**, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak aurreikusten du, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko langileak arian-arian euskaldundu behar direla eta zehaztu behar dela zein lanpostutan den nahitaezkoa bi hizkuntza ofizialak jakitea.

Lege-euskarri artean arin horrekin, **Orioko Udala Euskal Herriko lehenbizikoetakoa izan zen «Udal-langilegoa euskalduntzeko eta alfabetatzeko plangintza» bat onartzen**, 1988an. Plangintza haren bidez, Udalak euskalduntze- eta alfabetatze-bidean jarri zituen udal-langileak, bakoitzari ezarritako bete beharreko maila eta epe bat jarritik hura betearazteko.

Geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko **Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legea** onartu zen, eta haren V. titulua eta hori garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako arauak dira herri-administrazioetako euskararen erabileraren normalizazio-prozesuaren oinarria. Arau horiek izan ziren lehen plangintzaldiaren oinarria (1990-1995).

Bigarren plangintzaldia arautu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko **86/1997 dekretuak**, berriz, apirilaren 15ekoak, elementu berriak erantsi zituzten lehenengo plangintzaldiko arauak, bereziki erabilera sustatu behar diren inguruan. Horrela, dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zuten euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxiengo osagaiak zehaztu zituen 18. atalean.

Berariaz aipatu beharra dago, baita ere, **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa**, «Udalen Legea» gisa ezagutzen dena, eta hura garatzen duen **179/2019 dekretua**, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Bi lege-arau horiek irizpideak ematen dituzte euskararen erabilera arautzeko eta norabide argi bat ezartzen diote udal-administrazioari, euskara gero eta gehiago erabiltzeko.

Azkenik, aipatutako 86/1997 dekretua ordeztu berri duen **19/2024 dekretua** oraintsu jarri da indarrean eta, aurrerantzean, horrek markatuko du herri-erakundeetako hizkuntza-plangintzaren norabidea.

Horrez gain, sarreran esan dugun bezala, **Orioko Udala UEMako kide da 2002az geroztik** eta UEMaren helburu nagusia, bere estatutuetan jaso, hauxe da: «euskararen erabilera ahalbidetzea eta bermatzea mankomunitatea osatzen duten udaletako barne-jardueran eta udalerrietako arlo guztietan».

Unean uneko lege-arauetan oinarrituta, **Orioko Udalak** Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak idatzi eta onartu ditu plangintzaldiz plangintzaldi eta, plan horien bidez, **aurrerabide nabarmena egin du euskararen normalizazioan**: euskarako klaseak antolatu ditu langileentzat, euskara ikasteko liberazioak bideratu ditu, hizkuntza-eskakizunak ezarri ditu, eguneroko jardunerako hizkuntza-irizpideak landu eta aplikatu ditu... **Orioko Udalak egindako ahalegin handiari esker, gaur egun gai da zerbitzua erabat euskaraz emateko herritarrei.**

Azken urteotan kudeaketak hartu du gero eta pisu handiagoa, eta hizkuntza-lidergoak ere bai. Udalarri eredugarri jokatzeari dagokio, eta 7. plangintzaldirako gidalerro nagusia horixe izango da. Arduradun politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean, Udalean euskararen erabilera kudeatu eta gidatuko dutenak, jarrera proaktiboa erakutsita.

3

METODOLOGIA ETA PROZEDURA

Plan estrategiko hau egiteko Eusko Jaurlaritzak 7. plangintzaldirako proposatutako metodologia eta irizpideak baliatu ditugu, eta oinarrian **KEMEN markoa** dago. Laguntza-koadro bat da KEMEN, erakundean hizkuntzaren presentzia, erabilera eta kudeaketa zertan gauzatu ohi den adierazten duena modu eskematiko eta ordenatuan.

Bi ardatz nagusi ditu: KUDEAKETA eta ERABILERA. Hauek dira metodologiaren ezaugarri nagusiak:

- Euskararen erabilera sustatzera bideratutako kudeaketa.
- Planen eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa.
- Erakundeko kargudunen eta arduradunen inplikazio eta lidergoa.
- Zeharkakotasuna erronka gisa.

Jaurlaritzak aplikazio informatiko bat jarri du udalon eskura, **SAREGIN** izeneko, eta horren bitartez 2024ko urtarrilean argazki bat atera zaio Orioko Udalari, euskararen erabilera nola kudeatzen duen ikusteko.

Datu horiek lortzeko bi galdetegi bete dira:

- Erakundeari dagokiona, euskara-teknikariak lankide eta arduradun batzuen laguntzaz zehaztutakoa (tartean behaketa batzuk eginez).
- Langileen galdetegia: 29 bidali dira, eta 28 erantzun jaso (18 emakume eta 10 gizon).

Erabilera-plana Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidaliko dugu, udalbatzarrera eraman aurretik behar duen aldeko txostena jaso dezan. Ondoren, erabilera-plana udalbatzarrak onartuko du eta bilkura horretan bertan, planaren jarraipen-batzordea eratu eta batzordeko kideak izendatuko ditu Udalak.



4

DIAGNOSTIKOA

Udalaren **gaur egungo egoera aztertzeko, 2024ko urtarrilean galdetegi bidez bildutako datuak erabili ditugu** batez ere. Horrez gain, Euskara Zerbitzuak behaketa bidez bildutakoak ere jaso dira.

KEMEN markoa erabiliz egin da 7. plangintzaldiaren ebaluazioa eta plan berria zehazteko ere oinarria horixe izan da. Marko berriak hizkuntzen erabilera kudeatzeko ardatz, eremu eta arloak jasotzen ditu, eta horien neurketa ahalbidetzen duten adierazleak eta horretarako euskarri eta azalpenak.

Lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Kudeaketa, hala ere, helburua baino gehiago, eragiteko palanka da, hain zuzen ere, erabileran eragitekoa. Beraz, euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...

Udal-langileen eta erakundearen galdetegiak SAREGIN aplikazioan sartu eta gero, emaitza nagusi hauek eman ditu 2 ardatzetan eta 13 alorretan:

1. KUDEAKETA		% 80,2
1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA		% 75,0
1.0.2 LIDERGOA		% 71,9
1.0.3 LANGILEAK		% 86,7
1.0.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA		% 89,6
1.0.5 ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA		% 91,2
1.0.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK		% 81,3
2. ERABILERA		% 88,7
2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA		% 95,1
2.1.1 IRUDIA		% 97,0

2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK	% 94,6
2.2 LAN-HIZKUNTZA	% 86,0
2.2.1 BARNE-HARREMANAK	% 97,9
2.2.2 KANPO-HARREMANAK	% 92,6
2.2.3 PRESTAKUNTZA	% 71,9
2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK	% 69,2
2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA	% 84,8
EBALUAZIO OROKORRA	% 86,2

Ebaluazio orokorreko ehunekoak esan nahi du **1.000 puntu posible**tik **862 puntu** lortu dituela Orioko Udalak. **Puntuazio ona da, inondik ere**, baina hobetzeko tarte ere eskaintzen duena.

Ikus ditzagun ebaluatutako atalak banan-banan:

LEHEN ARDATZA: KUDEAKETA

1.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Galdetegien bidez lortutako ehunekoa **% 75,0**

Erabilera-planaren jarraipena egiteko organo berezirik ez dago Orioko Udalean, baina horrek ez du esan nahi gaiari jarraipenik egiten ez zaionik. Jarraipenerako, lehendik dauden organo eta egiturak erabiltzen dira: Euskara Zerbitzua, Herritarren Zerbitzuetarako batzordea, asteroko koordinazio-bilera, eta abar. UEMako teknikariarekin eta euskara-zinegotziekin egiten zaio planari jarraipen estuagoa.

1.2 LIDERGOA

Galdetegien bidez lortutako ehunekoa **% 71,9**

Arduradun politikoek eta teknikoek jarrera egokia dute oro har hizkuntza-plangintzarekiko eta batzuk oso inplikaturik daude euskararen erabileran aurreratzeko. Hala uste dute galdetegiari erantzun dioten langileek.

1.3 LANGILEAK

Galdetegiaren bidez lortutako ehunekoa	% 86,7
---	---------------

Langileek informazioa jasotzen dute eta, oro har, hizkuntza-irizpideak ezagutu eta betetzen dituzte. Galdetegiari erantzun dioten langile guztiek (%100) adierazi dute iritzi positiboa dutela euskararen erabilerak Udalean izan duen bilakaeraz.

1.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA

Galdetegiaren bidez lortutako ehunekoa	% 89,6
---	---------------

Lanpostu-zerrendako langile ia guztiek daukate dagokien hizkuntza-eskakizuna edo altuagoa. Galdetegiari erantzun dioten guztiek (%100) uste dute nahikoa gaitasun badutela beren lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko, bai ahoz eta bai idatziz.

Arduradun politikoaren gaitasunaren pertzepzioari dagokionez, ehunekoa jaitsi egiten da (%75); baina, nolahi ere, esan behar da 2023-27 agintaldian Orioko Udaleko zinegotzi guztiak direla euskaldunak eta alfabetatuak.

1.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Galdetegiaren bidez lortutako ehunekoa	% 91,2
---	---------------

Galdetegiari erantzun dioten langileek uste dute Udalak ondo komunikatzen diela bere euskara sustatzeko estrategia herritarrei eta gainerako interes-taldeei.

Udalak, azken urteotan, asko hobetu du estrategia komunikatiboa, orokorrean, eta, beraz, baita euskarari buruzko politiken arlokoa ere.

1.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Galdetegiaren bidez lortutako ehunekoa

% 81,3

Galdetegiari erantzun dioten langile guztiek diote kontratueta eta dirulaguntzetan beti xertatzen direla hizkuntza-baldintzak eta, beraz, prozedura hori finkatuta dagoela. Hala ere, %75ak bakarrik uste du gero horri jarraipen sistematikoa egiten zaiola.

BIGARREN ARDATZA: ERABILERA

2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA

Galdetegiaren bidez lortutako ehunekoa

% 95,1

Galdetegiari erantzun dioten langileen ustez, Udalak euskara erabiltzen du nagusiki herritarrei zerbitzua emateko (%95,1). Datua oso altua da, eta horrek adierazten du Udalak abiapuntu ezin hobeak daukala aurrerapausoak ematen jarraitzeko.

2.1.1 ERAKUNDEAREN IRUDIA

Galdetegiaren bidez lortutako ehunekoa

% 97,0

Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Herriko errotuluei dagokienez, Udalaren mendekoak euskara hutsez daude ia denak: kale-izenak, norabidea markatzen duten errotuluak, trafiko-seinaleak...

Udal-instalazioetako hizkuntza-paisaia euskara hutsezkoa da, ia. Berdin udal-ibilgailuetako errotuluak eta udaltzainen eta udal-brigadako langileen arropetako testuak.

Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper gauzak

Herriarrentzako argitalpenak eta abarrak euskara hutsez argitaratzen dira, ia beti: festa-programa, eskuorriak, liburuak, aldizkarietako erreportajeak, webgunean argitaratzen diren albiste eta oharrak, ekitaldietako kartelak... Salbuespen bakarra turismoari begira argitaratzen den materiala da, hori, normalean lau edo gehiago hizkuntzatan argitaratzen da-eta: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, gutxienez.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren iragarkiak ere ele bitan bidaltzen ditu Udalak. Prentsa idatzian argitaratu beharreko ordainpeko iragarkiak ele bitan argitaratu ohi ditu Udalak.

Jendaurreko ekitaldiak

Udalak antolatutako jendaurreko ekitaldiak euskaraz egiten dira, normaltasunez.

Ikastaroak ere euskaraz izaten dira, normaltasunez, kolektibo berezientzat antolatutakoez aparte.

Kiroldegian eskaintzen diren ikastaro ia guztiak ere euskaraz dira.

Webgunea eta sare sozialak

Orioko Udaleko webguneko edukiak euskara hutsez lantzen ditu Udalak eta gero, Elia itzultzaile neuronal instalatuta dauka webgunean, erabiltzaileak aukera izan dezan edukiak 6 hizkuntzatan jasotzeko: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, katalanez, galegoz eta ingelesez. Erabiltzaileei itzulpen automatikoa eskaintzen zaie, inolako zuzenketarik gabe, akatsak izan ditzakeela abisatuta.

Udalaren sare sozialetako kontuek ere euskaraz funtzionatzen dute, normaltasunez. Gaztelania ere erabiltzen du Udalak sare sozialetan, hizkuntza horretan egindako kontsultei erantzuteko.

2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK

Galdetegi bidez lortutako ehunekoa

% 94,6

Idatzizko harremanak

Alde batetik, zabalkunde orokorreko mezuak udal-paneletan jartzen dira: bandoak, abisuak, oharra... Horiek guztiak euskaraz argitaratzen dira. Udalbatzarraren deialdiak ele bitan jartzen dira paneletan.

Inprimakiei dagokienez, Udalak bi inprimaki-eredu ditu, bai online jarrita eta bai paperean, udal-bulegoetara datozen herritarrei emateko: batetik, euskara hutsezkoa (herritar guztiei eskaintzen zaiena), eta, bestetik, ele bitako inprimakia, euskarari lehentasuna emanda (gaztelaniaz bete nahi duten herritarrei eskaintzen zaiena).

Udalaren barruko txostenak, aktak eta abar euskaraz egiten dira, normaltasunez, eta hala aurkezten zaizkie herritarrei eskatzen dituztenean edota webgunearen bidez.

Herritarrek eskaera bat euskara hutsez egiten badu, Udalak euskara hutsez erantzuten dio sistematikoki. Eskaera gaztelaniaz egiten badu, berriz, Udalak ele bietan edo gaztelaniaz erantzuten dio.

Harrerako lehen hitza eta ahozko harremanak

Lehen hitza euskaraz egiten dute udal-langileek beti. Udalak euskaraz egiten du herritarrekin ahoz, normaltasunez, haiek bestelako aukera egiten ez duten bitartean; bai telefonoz eta bai aurrez aurre.

Udalaren erantzungailuan irizpidea hau da: deitzen duen herritarrari hasieratik eskatzen zaio hizkuntza aukeratzeko, mezu elebidun baten bidez (aurrena euskaraz, gero gaztelaniaz). Behin hizkuntza-aukera egiten duenean, hark esandako hizkuntzan segitzen du erantzungailuak.

2.2 LAN-HIZKUNTZA

Galdetegi bidez lortutako ehunekoa

% 86,0

Udalaren lan-hizkuntzari dagozkion datuak ere oso altuak dira. Prestakuntzarekin lortutakoek jaisten dute gehienbat puntuazio orokorra, eta Udalak zail du hor eragitea, kanpoko eskaintzak jartzen duelako muga.

2.2.1 BARNE-HARREMANAK

Galdetegi bidez lortutako ehunekoa

% 97,9

Udal barruko harremanen datuak oso altuak dira eta ia %100era iristen dira kasu gehienetan. Euskara da barne-harremanetarako hizkuntza Orioko Udalean eta galdetegiari erantzun dioten langileek oso argi adierazten dute hori.

Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Udal-bulegoetako ageriko elementuak (egutegiak, horma-irudiak...) euskaraz daude.

Espediente-karpetak ere euskara hutsez daude, eta udal-langileek berek jarritako bestelako oharra, etiketak eta abar ere bai.

Makinei dagokienez, ohar idatziak dituen gailu bakarra kafe-makina da eta haren azalpenak euskaraz daude.

Informaziorako edota komunikaziorako tresnak

Langileentzako oharra eta komunikazioak euskaraz egiten dira, normaltasunez.

Langileen arteko informazio-trukerako posta-zerrenda bat dago, udal-ON izeneko, eta horra bideratzen diren mezuak euskaraz izaten dira erabat.

Lan-bileretako idatziak

Udalaren barruko txostenak, aktak eta abar euskaraz egiten dira normalean eta batzuk itzuli egiten dira gero gaztelaniara, herritarren batek eskatzen duenean. Salbuespena udalbatzarraren bilkuretako akta da: hori gaztelaniaz jasotzen du idazkariak, eta gero itzuli egiten da. Webgunean herritarren eskura jartzen den bertsioa, hala ere, euskarazkoa da.

Dekretuak eta ebazpenak euskaraz sortzen eta zabaltzen dira, normalean, baina oraindik egiten dira batzuk gaztelaniaz, gaiaren edo jasotzailearen arabera.

Erakundearen barne-harremanetarako idatziak

Barne-harremanetarako idatziak, mota guztietakoak, euskaraz egiten dira, normaltasunez.

Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak

Erakundearen barruko lan-bilerak euskaraz egiten dira, normaltasunez.

Erakundearen barruko harremanak, telefonoz nahiz aurrez aurre

Erakundearen barruko telefonozko harremanak euskaraz izaten dira, normaltasunez.

2.2.2 KANPO-HARREMANAK

Galdetegien bidez lortutako ehunekoa

% 92,6

Datu hau ere oso ona da: galdetegiari erantzun dioten langileek diotenez, udalaz kanpoko eragileekin dituzten harremanetan ere euskara da nagusi neurri handi batean eta, hala ez denean, solaskidearen gaitasun-faltagatik izaten da.

Administrazioekiko harremanak

Euskal Herriko beste administrazio publikoekin euskaraz dira normalean ahozko zein idatzizko harremanak, baldin eta solaskidea euskalduna bada.

Erakunde pribatuekiko harremanak

Euskal Herriko erakunde pribatuekin harremanak euskaraz eta gaztelaniaz izaten ditu Udalak, solaskidearen hizkuntza-mailaren arabera. Nolanahi ere, urtetan egindako lanaren ondorioz, gero eta gehiago dira ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz egiteko gai diren erakunde pribatuak eta gure eskualdean nabarmen igo da horien portzentajea.

Udalarentzat lan egiten duten enpresen artean Lan Arriskuen Prebentzioaz arduratzen den Lautalan enpresak erakusten du euskararen erabilera eskasena. Dokumentu nagusiak ele bitan badaude ere, guztiak ez; eta haiekiko posta elektronikoko bidezko mezu-trukeak-eta gaztelaniaz izan ohi dira, solaskideak ez dakielako euskaraz.

Gainerakoan, udal-langileek barneratuta dituzte Udalaren hizkuntza-irizpideak, eta enpresei ahoz jakinarazteko ohitura dute. Horrek eragina izan du idatzizko harremanetan nagusiki.

2.2.3 PRESTAKUNTZA

Galdetegien bidez lortutako ehunekoa

% 71,9

Udalak euskaraz eskaintzen die prestakuntza udal-langileei eta hala adierazten dute galdetegiari erantzun dioten langileek.

Nolanahi ere, prestakuntza orokorra, gehienetan, kanpoko eskaintzaren menpe dago eta horrek ez du askotan aukerarik ematen euskaraz egiteko.

Hizkuntzan trebatzeko prestakuntzari dagokionez, berriz, langileen %25ak bakarrik uste du Udalak nahiko prestakuntza eskaintzen diela.

2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK

Galdetegien bidez lortutako ehunekoa

% 69,2

Euskarazko baliabide informatikoen gaia ez dago sistematizatuta Orioko Udalean.

Elkarmedia enpresak ematen dizkio zerbitzu informatikoak Udalarari iaztik, eta ahalegina egin dugu langileen eskura dauden tresna informatikoak euskaratzen, baina oraindik badira gaztelaniazko tresnak erabiltzen dituzten langileak.

2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA

Galdetegien bidez lortutako ehunekoa

% 84,8

Galdetegiari erantzun dioten langileen % 84,8k dio euskaraz sortzen dituela laneko dokumentu guztiak. Oso datu ona da, baina hobetzeko tarte eskaintzen duena oraindik.

AMIA MATRIZEA

Diagnostikoan Orioko Udaleko azterketa egin ostean, AMIA matrize honetan jaso ditugu erakundearen jardunaren ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak.

AHULGUNEAK	MEHATXUAK
- Euskara hutsean egin daitezkeen zenbait barruko lan (aktak, txostenak...) ele bitan edo gaztelaniaz egiten dira oraindik. - Udal-langile batzuen artean ohikoa da gaztelania (ere) erabiltzea ahozko harremanetan; bereziki, egoera informaletan. - Kanpoko zenbat enpresarekiko harremanetan toki handia hartzen du gaztelaniak, ahoz eta idatziz. - Alor informatikoan eta, oro har, lanaren sistematizazioan atzeratuta dabil Udala, inguruko beste batzuekin alderatuta. - Langileen ustez, hizkuntza-prestakuntza gutxi eskaintzen die Udalak.	- Azken aldiko oldarraldi judizialak zailtasunak jartzen dizkie euskaraz normaltasunez funtzionatu nahi duten gurea bezalako udalei. - Langile batzuen artean ahozko harremanetan gaztelaniaz (ere) egiteko joera egonkortzea. - Ez dago bermatuta ordezkari politikoek euskara-maila egokia izango dutenik aurrerantzean eta, beraz, lau urtetik behin aldatu daiteke egoera (eta aldatzen da). - Adimen artifizialaren olatuak euskararen erabileraren kontrako eragina izatea; alegia, udal-langileek tresna berri horiek erabiltzea testuak gaztelaniaz sortzeko eta, ondoren, euskarara itzultzeko.
INDARGUNEAK	AUKERAK
- Udal-langile ia guztiek bete dute dagokien hizkuntza-perfila eta gai dira bere lana guztiz euskaraz betetzeko. Abiapuntu ezin hobe dugu, beraz, hizkuntzaren kalitatean aurrerapausoak emateko. - Udal-langileek barneratuta	- Udal-hautetsien euskara-maila mantendu edo hobetuz gero, benetako aukerak daude agintaldi honetan eta hurrengoan Udalak guztiz euskaraz funtzionatzera iristeko eta falta zaigun koska igotzeko. - Euskararen ezagutza, oro har,

daukate Udalaren lan-hizkuntza euskara dela. • Gaur egun Udalaren funtzionamenduaren zati nagusia euskaraz egiten da, normaltasunez; eta herritarrek barneratuta daukate hori. • Gaur egun Udaleko zinegotzi guztiak dira euskaldunak eta ondo egiten dute ahoz zein idatziz. • Udalarekin harremana duten enpresetan –bereziki, eskualdekoetan– asko hobetu da euskararen egoera; eta gehienek ez dute arazorik Udalarekin euskaraz aritzeko. • Udalaren hizkuntza-politika aho batez onartu izan du Udalak eta hala aplikatzen du. Ondorioz, herritarrek normaltasunez hartzen dute eta ez dago ia kontrako jarrerarik.	igotzen ari denez bai eskualdean eta bai probintzian, gero eta errazago izango da Udalak euskarazko funtzionamenduari eutsi ahal izatea egoera gero eta gehiagotan. • Azken aldian indartu egin dira euskararen aldeko ekimenak herrian (Euskaraldia, Korrika...) eta horrek herri-gogo bat erakusten du euskararen erabilera sustatzeko. Indar hori baliatu behar du Udalak, administrazioan ere aurrerapauso gehiago emateko. • Udala ondo posizionatuta dago hizkuntza-teknologia berriei etekina ateratzeko eta euskararen sustapenaren norabidean erabiltzeko. Aukera berri asko sortuko dira alor honetan eta ondo erabiltzen asmatu behar du Udalak.
---	---

ONDORIO NAGUSIAK

- Orioko Udalean ona da, orokorrean, euskararen egoera: euskara da udal-langileek normaltasunez erabiltzen duten hizkuntza, bai herritarrei zerbitzua ematerakoan eta bai beren artean, barruko lanetan. Egoera, gainera, egonkortuta dago eta ez du ematen epe motzean aldatuko denik. Abiatuta daukagun langileen egonkortze-prozesuak, gainera, sendotu egingo du indargune hori.
- Aurrera begira, garrantzitsua da zerbitzua erabat euskaraz eskaintzeko baldintzak zaintzea: euskara lehenestea, harremana euskaraz nahi duten herritarrei zerbitzua beti hala ematea, hizkera egokia eta ulerterraza erabiltzea, eta langileek jarrera proaktiboa izatea herritarrei euskararen erabileraren aldeko eskaintza egiteko.
- Euskaraz sortzeko baliabideak eskaintzen jarraitzea lehentasunezkoa izango da 7. plangintzaldi honetan ere. Langileek euskaraz idazteko erraztasuna lortzea da azken helburua eta eroso jardutea. Horretarako laneko prestakuntza euskaraz izatea garrantzitsua izango da, baita laneko ohiko tresnak euskaraz izatea ere.
- Horrekin batera, Udalak abiapuntu ezin hobea du aurrerapauso handia emateko darabilen euskararen kalitatean, horretarako hizkuntza-teknologia berriak baliatuta.
- Aurrekoarekin lotuta, garrantzizkoa da hizkuntza-teknologia berriek planteatzen dituzten erronkei erantzuteko prestatzea eta ausardiaz jokatzeko tresna berri horiek euskararen erabileraren alde jartzeko. Hizkuntza-teknologia berriak tresna bikainak izan daitezke Udalaren funtzionamendua hobetzeko; besteak beste, aukera ematen dute Udaleko testu guztiak euskaraz idazteko eta itzultzaile automatikoa erabiltzeko gaztelaniazko bertsioak sortzeko, beharrezko den guztietan. Alegia, aukera bikaina ematen dute Udalaren euskara hutsezko funtzionamenduan sakontzeko, inor kanpoan utzi gabe. Horrek izugarrizko saltoa lekarke jardun administratiboaren oinarrian dauden efikaziaren eta efizientiaren printzipioen aplikazioan.
- Gobernantzari lotuta, kudeaketa zaindu, lidergoa bultzatu eta Plan Estrategikoari jarraipena egiteko prozedura zehaztu beharko da. Horretarako, egituraketa egokia antolatzea izango da plangintzaldi berriaren erronka nagusia.

5

2024-2027 ERABILERA-PLAN ESTRATEGIKOA

Plan estrategikoa jarduketa-prozesu bat da, xede hau duena: euskararen erabilera normalizatzea zerbitzu-hizkuntza gisa eta lan-hizkuntza gisa. Horretarako, 2027ra bitartean Udalak lortu nahi dituen helburuak, eragin beharreko eremuak eta aztertu beharreko adierazleak biltzen ditu, betiere hasierako diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibotik abiatuta.

MISIOA: Orioko Udala euskararen normalizazioan eredugarri eta eragile izatea.

IKUSPEGIA: Non egon nahi dugu 2027ko abenduan?

- Orioko Udala euskararen babesgunea izango da.
- Euskara izango da Udaleko ohiko lan-hizkuntza, bai ahoz eta bai idatziz.
- Euskara erabiltzeko eragile aktiboa izango da Udala harreman guztietan.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuko ditu Udalak.
- Hizkuntza-teknologia berrien erabileran eredugarri eta bide-erakusle izango da Udala.
- Egoki kudeatuko ditu hizkuntzak, zeharkakotasunez eta partaidetza bultzatuta.
- Euskal hiztun ahaldunduz osatutako komunitatea indartuko du.

Bi ardatzetan banatuta, kudeaketan eta erabileran, **ERRONKA** batzuk markatu ditu Udalak, eta 13 arloetako bakoitzean zenbait **HELBURU ESTRATEGIKO**.

Plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko tresna kudeaketa-plana izango da. 2024ko kudeaketa-planean 3 ekintza-multzo nagusi landuko dira bereziki:

- Plan estrategikoa kudeatuko duten egiturak abiaraztea.
- Plana bera eta hizkuntza-irizpideak erakunde osoan jakinaraztea.
- Hizkuntza-teknologia berrien aplikazio sistematikorako urratsak egiten hastea.

Segidako taulan bildu dugu SAREGIN aplikazioan 48 adierazleetan jasotako emaitzak («2024» izeneko 1. zutabea) eta ondoan jarri dugu 2027. urtearen amaieran lortu nahi dugun ehunekoa (2. zutabea).

Oro har erabili dugun irizpidea hau izan da: lortutako **puntuazioa %10 igotzeko helburua** jarri dio Udalak bere buruari adierazle gehienetan.

	2024	2027
1. KUDEAKETA	% 80,2	%88
Kudeaketarako erronkak:		
• Egitura egokia antolatzea Udalaren kudeaketa orokorrean txertatuta.		
• Jarraipen sistematikoa egitea.		
• Hizkuntza-irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.		
• Arduradun politikoaren eta langileen lidergoa sustatzea.		
1.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	% 75,0	%83
Helburu estrategikoak:		
• Egitura egonkorra eratzea planaren jarraipenerako Udaleko langile eta ordezkari politikoekin.		
• Euskararen kudeaketa orokorra Udalaren kudeaketaren baitan integratu eta sistematizatzea.		
• Planean zehaztutako helburuen eta hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipen sistematikoa egitea.		
1.1.1 Erakundeak plan estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	%75,0	%83
1.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	%75,0	%83
1.1.3 Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-ardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean	%100	%100
1.2 LIDERGOA	% 71,9	%79
Helburu estrategikoak:		
• Udal-ordezkari eta arduradunek euskararen normalizazioan jarrera proaktiboa izatea.		

• Ordezkarri politikoak aurrerantzean ere euskaldunak izan daitezzen sustatzea. • Hizkuntza-irizpideak ezagutzea eta betetzea, sail guztietan. • Herritarren eta gainerako langileen aurrean eredugarri izatea.		
1.2.4 Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen	%66,0	%73
1.2.5 Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean	%75,0	%83
1.0.2.6 Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan	%75,0	%83
1.3 LANGILEAK Helburu estrategikoak: • Langileek hizkuntza-irizpideak ezagutzea eta betetzea. • Sustapen ekintzetarako gonbidapenak denei zabaltu eta langile gehiagok parte hartzea.	% 86,7	%95
1.3.7 Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten	%80,4	%88
1.3.8 Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	%94,2	%100
1.3.9 Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak	%94,2	%100
1.3.10 Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen ekintzetan	%61,0	%67
1.3.11 Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz	%100	%100
1.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA Helburu estrategikoak: • Langileen euskara-maila hobetzea, berariazko prestakuntza eskainiz. • Langileen testuen kalitatea hobetzea, hizkuntza-teknologia berriak erabiliz. • Hautaprobetan gutxienez proba bat euskaraz egitea. • Ordezkarri politikoei laguntza eta trebakuntza eskaintzea gaitasuna hobetu eta Udalak euskaraz funtzionatu ahal izateko.	% 89,6	%98

1.4.12 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	%100	%100
1.4.13 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	%96,4	%100
1.4.14 Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	%75,0	%83
1.5 ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA Helburu estrategikoak: • Ordezkarri tekniko eta politikoek parte hartzea hizkuntzen kudeaketarekin lotutako foro eta jardunaldietan.	% 91,2	%100
1.5.15 Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei	%100	%100
1.5.16 Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du	%70,8	%78
1.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK Helburu estrategikoak: • Kontratueto hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egitea. • Dirulaguntzetarako eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egitea. • Udal baimenetarako hizkuntza-klausulen ereduak zehaztu, txertatu eta jarraipen sistematikoa egitea.	% 81,3	%89
1.6.17 Kontratueto hizkuntza-klausulak txertatzen dira	%100	%100
1.6.18 Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira	%100	%100
1.6.19 Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueto hizkuntza-klausulen betetze-mailari	%75,0	%83
1.6.20 Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	%75,0	%83
2. ERABILERA Erabilerarako erronkak: • Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea • Euskara izatea sortze-, lan- eta zerbitzu-hizkuntza	% 88,7	
2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA	% 95,1	%100
2.1.1 IRUDIA Helburu estrategikoak: • Hizkuntza-irizpideak betetzea irudiari lotutako adierazleetan • Hizkuntza-kalitatea zaintzea	% 97,0	%100

• Arduradun politikoek agerraldietako hizkuntza-irizpideak betetzea.		
2.1.1.21 Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	%100	%100
2.1.1.22 Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	%100	%100
2.1.1.23 Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	%90	%99
2.1.1.24 Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	%100	%100
2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK Helburu estrategikoak: • Ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea. • Herritarrei ematen zaizkien testuen kalitatea hobetzea. • Langileak eta udal-ordezkariek proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten sustatzeko, idatziz nahiz ahoz. • Idatziz euskaraz egiten duten herritarrei sistematikoki euskara hutsean erantzutea.	% 94,6	%100
2.1.2.25 Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	%88,9	%98
2.1.2.26 Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	%95,4	%100
2.1.2.27 Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	%90,0	%99
2.1.2.28 Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	%100	%100
2.1.2.29 Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	%100	%100
2.1.2.30 Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	%77,0	%85
2.1.2.31 Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	%100	%100
2.2 LAN-HIZKUNTZA	% 86,0	%95
2.2.1 BARNE-HARREMANAK Helburu estrategikoak: • Onartutako hizkuntza-irizpideak betetzea. • Langileek barruko idatzietan darabilten euskararen kalitatea hobetzea. • Lankideen arteko ahozko erabilera sustatzea.	% 97,9	%100

• Ofizioz hasten diren prozedura administratibo guztiak euskaraz abiatzea.		
2.2.1.32 Lan-bilerak euskaraz egiten dira	%98,5	%100
2.2.1.33 Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	%96,4	%100
2.2.1.34 Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	%94,6	%100
2.2.1.35 Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	%96,4	%100
2.2.1.36 Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne-izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan	%100	%100
2.2.1.37 Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar	%100	%100
2.2.1.38 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	%96,2	%100
2.2.2 KANPO-HARREMANAK Helburu estrategikoak: • Ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzea. • Erakundeen artean euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea. • Erakunde pribatuekin euskara hutsezko harremana sustatzea eta jarraipena egitea.	% 92,6	%100
2.2.2.39 Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	%90,0	%99
2.2.2.40 Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	%100	%100
2.2.2.41 Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	%80,8	%89
2.2.2.42 Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	%90,0	%99
2.2.3 PRESTAKUNTZA Helburu estrategikoak: • Langile guztiei eskaintako hizkuntza prestakuntza indartzea. • Langileei eskaintzen zaien prestakuntza orokorra ahal den guztietan euskarazkoa izatea.	% 71,9	%79
2.2.3.43 Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	%100	%100
2.2.3.44 Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	%70,9	%78

2.2.3.45 Hizkuntza trebakuntza eskaintzen zaie langileei	%25	%75
2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK Helburu estrategikoak: • Onartutako hizkuntza irizpideak betetzea. • Hizkuntza-teknologia berriak eguneroko lanean txertatzea eta euskaraz gehiago eta hobeto egiteko baliatzea. • Lan-tresna guztiak euskaraz jartzea. • Baliabide informatikotatik eratorritako inprimaki eta dokumentazioa hizkuntza-irizpideen arabera izatea.	% 69,2	%76
2.2.4.46 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak	%70,4	%75
2.2.4.47 Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak	%,67,9	%75
2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA Helburu estrategikoak: • Euskaraz sortzea. • Hizkuntza-teknologia berriak baliatzea euskara izan dadin beti udal-agiriak sortzeko hizkuntza eta, beharrezkoa denean, beste hizkuntzetara itzultzeko. • Onartutako hizkuntza-irizpideak ezartzea, tartean itzulpenei lotutakoak.	% 84,8	%93
2.2.5.48 Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak	%84,8	%93

EBALUAZIO OROKORRA

% 86,2

%95

AGINTE-TAULA

Adierazleen guztien artean badira 14 berezi, AGINTE TAULA edo PANELA osatzen dutenak, eta Orioko Udalak horien berri emango die Eusko Jaurlaritzako arduradunei, 19/2024 dekretuak agintzen duen eran.

KUDEAKETA		
EUSKARAREN OROKORRA	KUDEAKETA	1. Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
LIDERGOA		2. Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. 3. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen.
LANGILEAK		4. Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK		5. Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

ERABILERA		
ZERBITZU- HIZKUNTZA	HERRITARREKI KO HARREMANAK	6. Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen. 7. Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz. 8. Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira. 9. Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. 10. Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.
LAN-HIZKUNTZA	BARNE-HARREMANAK	11. Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da. 12. Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.
	KANPO-HARREMANAK	13. Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak
	SORTZE-HIZKUNTZA	14. Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.

6

EGITURAKETA ETA BALIABIDEAK

Derrigortasun-indizea

19/2024 dekretuaren 25. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigortasun-indizea ezartzen da. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez: euskaldunak + (ia euskaldunak/2). Horren baitan, 7. plangintzaldi honetan, Orioko Udalak nahitaez bete beharreko indizea % 80,79koa da 2021. urteko erroldako datu soziolinguistikoen arabera.

Euskarazko administrazio-unitateak

19/2024 dekretuko 17. artikuluko 6. puntuaren arabera, entitateak euskarazko administrazio-unitateak izendatu ahal izango ditu plan estrategikoan. Euskarazko administrazio-unitateak dira baldintza hau betetzen dutenak: Lanpostuen % 80an gutxienez lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenak, arduraduna barne.

Unitate horiek nagusiki euskaraz beteko dituzte beren eginkizunak, entitate bakoitzaren plan estrategikoak ezartzen duenari jarraituz.

Horrenbestez, **Orioko Udalean sail guztiak euskarazko unitate izendatu ditugu.** Ondorioz, unitate eta lanpostu horietan euskara, zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izango da: hau da, agirien sorburu-hizkuntza euskara izango da, baita lehen hizkuntza ere jendaurreko harremanetan eta unitatearen gainerako zereginetan ere.

Plana kudeatzeko egiturak

Udalaren aginte-organismoetan eta sailetan hizkuntza-kudeaketa zeharkakotasunez landuko da, eta hizkuntza-irizpideen jarraipena egiteko batzorde bat osatuko du Udalak kide hauekin:

- Arduradun politikoak: alkatea eta euskara-zinegotzia
- Udal-langileen ordezkaria.

- UEMAko hizkuntza-teknikaria
- Euskara-teknikaria

Jarraipen-batzordearen zeregin nagusiak hauek izango dira (gutxienez urtean behin elkartuta):

- Udalaren kudeaketan hizkuntza-irizpideak zenbateraino bete diren neurtzea
- Neurri zuzentzaileak proposatzea (behar izanez gero)
- Erabilera-planaren jarraipena egitea
- Planaren helburuak betetzeko ekintzak proposatzea
- Planaren helburuak zenbateraino betetzen ari diren ebaluatzea

Nolanahi ere, Udalaren ohiko organo edo gune batzuetan ere egingo zaio jarraipena erabilera-planari.

Era berean, lantalde tekniko bat egongo jarraipen zehatzagoa egiteko urtean zehar, gutxienez 3-4 bilera eginda: euskara teknikariak, euskara zinegotzia(k) eta UEMAko teknikaria elkartuko dira talde horretan.

Horrez gain, bestelako lantaldeak ere eratuko dira beharrezkotzat jotzen denean kudeaketa-planean begiz jotako proiektuak bideratzeko.

Hizkuntza-irizpideak

Orioko Udalak bere hizkuntza-irizpideak berritu ditu, 7. plangintzaldiak ezarri duen marko berrira egokituta (ikusi 2. eranskina).



1. ERANSKINA

LANGILEEN ZERREND

2024 urteko Lanpostu Zerrenda / Relación de puestos de Trabajo del año 2024

ZK.	LANPOSTUA	Dotazioa / Dotación		Lanpostu mota / Tipo de puesto	Lanaldia/Jornada	Izaera / Cáriter	Hornitzeko modua	Hizkuntz.Eskakizuna/ Perfil lingüístico	Derrigorrtasun data/ Fecha de preceptividad	Taldea/ Grupo	Eskala/Escala	Azpieskala/ Subescala / Mota / Clase	Destino osagarria / Complemento de destino	Berariazko osagarria/ Complemento específico	Dedikazio berezia / Dedicación Especial	Titulazioa / Titulación	Oharrak / Observaciones
		IDAZKARITZA/SECRETARÍA															
1.1	Idazkari-Kontu-hartzailea/ Secretario-Interventor	1	S	100%	F	L	L	4	1993.06.30	A1	GN	I-KH	27	32.916,99	6%	1	
1.2	Administrazio Orokorreko Teknikaria / Técnico/a de Administración General	1	N	100%	F	L	L	4	2020.11.26	A1	AO	T	24	31.333,27		1.2	
1.3	Ekonomia teknikaria/ Técnico/a de Economía	1	N	100%	F	L	L	3	2022.03.08	A1	AB	T/G.M	24	31.333,27		1.3	1
1.4.1	Administraria / Administrativo/a	1	N	100%	F	L	L	3	1993.06.30	C1	AO	ADM	14	19.182,09		3	
1.4.2	Administraria / Administrativo/a	1	N	100%	F	L	L	3	1992.12.31	C1	AO	ADM	14	19.182,09		3	
1.4.3	Administraria / Administrativo/a	1	N	100%	F	L	L	3	1993.06.30	C1	AO	ADM	14	19.182,09		3	
1.4.4	Administraria / Administrativo/a	1	N	100%	F	L	L	3	2019.11.28	C1	AO	ADM	14	19.182,09		3	1
1.4.5	Administraria / Administrativo/a	1	N	100%	F	L	L	3	2019.11.28	C1	AO	ADM	14	19.182,09		3	1
1.4.6	Administraria /	1	N	100%	F	L	L	3	2022.03.08	C1	AO	ADM	14	15.634,64		3	1

	Administrativo/a																				
1.4.7	Administrataria / Administratibo/a	1	N	100%	F	L	3	2025.01.01	C1	AO	ADM	14	15.634,64				3				
1.5	Artxibozaina / Archivero/a	1	N	100%	L	L	3	1996.06.30	C1			14	19.182,09				3				
	HIRIGINTZA/URBANISMO																				
2.1	Arkitektoa / Arquitecto/a	1	S	100%	F	L	4	2000.05.12	A1	AB	T/G.M	24	31.333,27	4%			1.1				
2.2	Arkitekto teknikoa / Arquitecto/a Técnico/a	1	N	100%	F	L	4	1991.06.30	A2	AB	T/E.M	17	23.900,88	4%			2.1	1	1		
2.3	Administrataria / Administratibo/a	1	N	100%	F	L	3	1992.12.31	C1	AO	ADM	14	19.182,09	8%			3	1	1		
2.4.1	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L	L	1	1993.12.31	AP			8	13.942,53								
2.4.2	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L	L	1	2017.07.26	AP			8	13.942,53								
2.4.3	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L	L	1	2002.02.26	AP			8	13.942,53								
2.4.4	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L	L	1	2019.09.26	AP			8	13.942,53								
2.4.5	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L	L	1	---	AP			8	13.942,53								
2.4.6	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L	L	1	---	AP			8	13.942,53								
2.5	Obra eta zerbitzuetako brigadako arduraduna / Jefe de la brigada de obras y servicios	1	S	100%	F	L	2	1991.06.30	C1	AB	Z.B/O.L	14	20.955,89				3, 5				
2.6.1	Eginkizun anitzetarako ofiziala / Oficial Polivalente	1	N	100%	F	L	2	2013.09.06	C2	AB	Z.B/O.L	11	18.935,17				4, 5				
2.6.2	Eginkizun anitzetarako ofiziala / Oficial Polivalente	1	N	100%	F	L	2	2019.02.05	C2	AB	Z.B/O.L	11	18.935,17				4, 5				

[illegible]

	Y DEPORTES																	
4.1	Kirol eta gazteriako teknikaria / Técnico/a de deporte y juventud	1	S	100%	F	L	4	2000.05.12	A2	AB	T/E.M	17	21.857,10				2.5	
4.2	Kultura eta festetako teknikaria Técnico/a de cultura y fiestas	1	S	100%	F	L	4	1998.06.04	A2	AB	T/E.M	17	19.813,01	9%			1	
4.3	Euskara eta hezkuntzako technikaria / Técnico/a de euskara y educación	1	S	100%	F	L	4	TG	A1	AB	T/G.M	21	19.362,67				1	
4.4	Liburutegiko arduraduna / Responsable de biblioteca	1	N	100%	F	L	3	1991.02.28	A2	AB	T/E.M	17	13.951,33				1	1
4.5	Atezaina / Conserje	1	N	100%	L	L	2	1991.06.30	AP			8	13.942,53					
	GIZARTE ZERBITZUAK / SERVICIOS SOCIALES																	
5.1	Gizarte zerbitzueta arduraduna / Responsable de servicios sociales	1	S	100%	F	L	4	1993.06.30	A2	AB	T/E.M	17	23.900,88				2.3	
5.2	Gizarte zerbitzu eta berdintasun politikarako technikaria / Técnico/a de servicios sociales e igualdad	1	N	100%	F	L	3	2017.06.27	A2	AB	T/E.M	17	19.813,01				2.3	
5.3	Administrataria / Administrativo/a	1	N	100%	F	L	3	2019.02.05	C1	AO	ADM	14	15.634,64				3	1
	TURISMOA / TURISMO																	
6.1	Turismo, Ostalaritza eta Merkataritzako Teknikaria / Técnico/a de Turismo, Hostelería y Comercio	1	S	100%	F	L	4	2017.06.26	A2	AB		17	19.813,01				2.2, 5, 9	
6.2	Harreragilea / Recepcionista	1	N	100%	L	L	3	2022.03.08	C2			11	13.860,77				4, 7	

6.3.1	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	77,78%	L FD	L	1	---	AP				8	13.942,53			8
6.3.2	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	77,78%	L FD	L	1	2022.03.08	AP				8	13.942,53			8
6.3.3	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	77,78%	L FD	L	1	2022.03.08	AP				8	13.942,53			8
	KANPINA / CAMPING																
7.1	Zuzendaria / Director/a	1	S	100%	F	L	3	1993.12.31	A2	AB	Z.B./E.M	17	19.813,01		2,2, 5, 9		
7.2	Mantentze Arduraduna / Jefe/a de Mantenimiento	1	N	100%	L	L	2	2022.03.08	C2			11	18.935,17		4, 5		
7.3	Harrerako Arduraduna / Jefe/a de Recepción	1	N	100%	L FD	L	3	2022.03.08	C2			11	18.935,17		4, 7		3
7.4.1	Eginkizun anitzetarako langile-guarda / Operario polivalente - guarda	1	N	100%	L FD	L	2	2022.03.08	AP			8	17.245,51		5		4
7.4.2	Eginkizun anitzetarako langile-guarda / Operario polivalente - guarda	1	N	100%	L FD	L	2	---	AP			8	17.245,51		5		4
7.4.3	Eginkizun anitzetarako langile-guarda / Operario polivalente - guarda	1	N	100%	L FD	L	2	2022.03.08	AP			8	17.245,51		5		4
7.4.4	Eginkizun anitzetarako langile-guarda / Operario polivalente - guarda	1	N	100%	L FD	L	2	2019.09.26	AP			8	17.245,51		5		4
7.4.5	Eginkizun anitzetarako langile-guarda / Operario polivalente - guarda	1	N	100%	L FD	L	2	2022.03.08	AP			8	17.245,51		5		5
7.5.1	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L FD	L	1	2022.03.08	AP			8	13.942,53				3
7.5.2	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L FD	L	1	2022.03.08	AP			8	13.942,53				3
7.5.3	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L FD	L	1	---	AP			8	13.942,53				3
7.5.4	Garbitzailea /	1	N	100%	L FD	L	1	2022.03.08	AP			8	13.942,53				5

	Limpiador/a																									
7.5.5	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L FD	L	1	2022.03.08	AP						8						13.942,53					6
7.5.6	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L FD	L	1	2022.03.08	AP						8						13.942,53					6
7.5.7	Garbitzailea / Limpiador/a	1	N	100%	L FD	L	1	2022.03.08	AP						8						13.942,53					7
7.6.1	Harreragilea / Recepcionista	1	N	100%	L FD	L	3	2022.03.08	C2						11						13.860,77			4, 8		3
7.6.2	Harreragilea / Recepcionista	1	N	100%	L FD	L	3	2022.03.08	C2						11						13.860,77			4, 8		3
7.6.3	Harreragilea / Recepcionista	1	N	100%	L FD	L	3	2022.03.08	C2						11						13.860,77			4, 8		5
	MUSIKA ESKOLA / ESCUELA DE MUSICA																									
8.1	Irakasle-Zuzendaria / Profesor/a-Director/a	1	S	100%	L	L	3	2022.03.08	A2						17						19.813,01			2.4.1		
8.2	Administrari Laguntzailea / Auxiliar Administrativo/a	1	N	57,14%	L	L	3	2022.03.08	C2						11						17.876,42			4		
8.3.1	Irakaslea (kantua eta osagarriak)/ Profesor/a (canto y complementarios)	1	N	23,81%	L	L	3	2022.03.08	A2						17						15.725,13			2.4.2		2
8.3.2	Irakaslea (flauta eta osagarriak)/ Profesor/a (flauta y complementarios)	1	N	23,41%	L	L	3	2022.03.08	A2						17						15.725,13			2.4.3		2
8.3.3	Irakaslea (Trikitixa, panderoa eta osagarriak) / Profesor/a (trikitixa, pandero y complementarios)	1	N	83,33%	L	L	3	2022.03.08	C1						17						19.629,98			2.4.4		2



ORIO
marea bizian



ORIOKUDALA

8.3.4	Irakaslea (eskusoinua eta osagarriak) / Profesor/a (acordeón y complementarios)	1	N	2,38%	L	L	3	2022.03.08	A2			17	15.725,13		2.4.5	2
8.3.5	Irakaslea (biolontxelo eta osagarriak) / Profesor/a (violonchelo y complementarios)	1	N	2,38%	L	L	3	2022.03.08	A2			17	15.725,13		2.4.6	2
8.3.6	Irakaslea (perkusioa eta osagarriak) / Profesor/a (percusión y complementarios)	1	N	33,93%	L	L	3	2022.03.08	A2			17	15.725,13		2.4.7	2
8.3.7	Irakaslea (gitarra elektrikoa eta osagarriak) / Profesor/a (guitarra eléctrica y complementarios)	1	N	11,91%	L	L	3	---	A2			17	15.725,13		2.4.8	2
8.3.8	Irakaslea (biolina eta eta osagarriak) / Profesor/a (violín y complementarios)	1	N	76,19%	L	L	3	2022.03.08	A2			17	15.725,13		2.4.9	2
8.3.9	Irakaslea (gitarra klasikoa eta osagarriak) / Profesor/a (guitarra clásica y complementarios)	1	N	71,43%	L	L	3	2022.03.08	A2			17	15.725,13		2.4.10	2
8.3.10	Irakaslea (dantza eta eta osagarriak) / Profesor/a (danza y complementarios)	1	N	63,38%	L	L	3	2022.03.08	A2			17	15.725,13		2.4.11	2
8.3.11	Irakaslea (piano eta eta osagarriak) / Profesor/a (piano y complementarios)	1	N	99,41%	L	L	3	---	A2			17	15.725,13		2.4.12	2



ORIO
marea bizian



ORIOKUDALA

8.3.12	Irakaslea (tronpeta eta osagarriak) / Profesor/a (trompeta y complementarios)	1	N	12,5%	L	L	3	2022.03.08	A2		17	15.725,13		2.4.13	2
8.3.13	Irakaslea (klarinetea eta osagarriak) / Profesor/a (clarinete y complementarios)	1	N	95,71%	L	L	3	2022.03.08	A2		17	15.725,13		2.4.14	2

1. LANPOSTU MOTA/TIPO DE PUESTO

S	Bakana	Singularizado
N	Ez bakana	No Singularizado

2. IZAERA / CÁRACTER

F	Funtzionarioa	Funcionario
L	Laborala	Laboral
L-FD	Laboral finko-etenduna	Laboral fijo-discontinuo

3. LANPOSTUA HORNITZEKO MODUA/SISTEMA DE PROVISIÓN DE PUESTO

L	Lehiaketa	Concurso
---	-----------	----------

4- ESKATUTAKO BALDINTZAK/REQUISITOS EXIGIDOS

4.1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA/PERFIL LINGÜÍSTICO

1	1197ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoak	Los definidos en el Decreto 86/1997, de 15 de abril
2		
3		
4		
TG	Teknikari gaitua	Técnico profesional

4.2. SAILKAPEN TALDEA/GRUPO DE CLASIFICACIÓN

A1 A2 C1 C2 AP- Lanbide Taldeak	Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 76. artikulua	A1 A2 C1 C2 AP - Agrupaciones Profesionales	Art. 76 del Estatuto Básico del Empleado Público
---	---	---	--

4.3. ESKALA/ESCALA

GN	Gaikuntza nazionala	Habilitación nacional
AO	Administrazio Orokorra	Administración General
AB	Administrazio Berezia	Administración Especial

4.4. AZPIESKALAK/SUBESCALAS . MOTA/CLASE

4.4.1. GAIKUNTZA NAZIONALA/ HABILITACIÓN NACIONAL

I-KH	Idazkaritza-Kontuhartzailletza	Secretaría - Intervención
------	--------------------------------	---------------------------

4.4.2. ADMINISTRAZIO OROKORRA/ ADMINISTRACIÓN GENERAL

T	Teknikaria	Técnica
TG	Kudeaketa	De Gestión
ADM	Administraria	Administrativa
A.A	Laguntzailea	Auxiliar
S	Mendekoa	Subalterna

4.4.3. ADMINISTRAZIO BEREZIA/ ADMINISTRACIÓN ESPECIAL

T	Teknikaria	Técnica
G.M	Goi-mailakoa	Superior
E.M	Erdi-mailakoa	Medio
L	Laguntzaileak	Auxiliares
Z.B	Zerbitzu Bereziak	Servicios Especiales
UD	Udaltzaingoa	Policía Local
O.L	Ofizioetako langileak	Personal de Oficinos

4.5 TITULAZIOAK/TITULACIONES

1	Unibertsitateko Gradu titulua edo baliokidea	Título universitario de Grado o equivalente
1.1	Arkitektura gradua edo baliokidea	Grado en Arquitectura o equivalente
1.2	Zuzenbide gradua edo baliokidea	Grado en Derecho o equivalente
1.3	Ekonomiako gradua edo baliokidea	Grado en Economía o equivalente
2.1	Arkitektura Teknikoko Gradua edo baliokidea	Grado en arquitectura técnica o equivalente
2.2	Enpresa eta jarduera gradua, Turismo gradua, Enpresen zuzendaritza eta administrazio gradua, Ekonomia gradua, Antolakuntzako ingeniariaritz edo baliokidea.	Grado en Empresas y Actividades Turísticas, Grado en Turismo, Grado en Dirección y Administración de Empresas, Grado en Economía, Grado en Ingeniería en Organización o asimilados.
2.3	Gizarte Langintzako gradua edo baliokidea	Grado en Trabajo Social o equivalente
2.4.1	Txistuko irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Txistu o equivalente
2.4.2	Kantuko irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Canto o equivalente
2.4.3	Flautako irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Flauta o equivalente
2.4.4	Batxilerra, teknikari titulua edo baliokidea eta Trikitixa irakasteko gaikuntza eta Panderoa	Bachiller, título técnico o equivalente y Habilitación Docente de Trikitixa y

	irakasteko gaikuntza	Habilitación Docente de Pandero
2.4.5	Akordeioiko irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Acordeón o equivalente
2.4.6	Biolontxeloko irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Violoncello o equivalente
2.4.7	Perkusioko irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Percusión o equivalente
2.4.8	Gitarrako irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Guitarra o equivalente
2.4.9	Biolineko irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Violin o equivalente
2.4.10	Gitarrako irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Guitarra o equivalente
2.4.11	Unibertsitateko Gradu titulua edo baliokidea eta Tradizioan oinarritutako dantza irakasteko gaikuntza	Título universitario de Grado o equivalente y Habilitación Docente en Danza de raíz Tradicional
2.4.12	Pianoko irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Piano o equivalente
2.4.13	Tronpetako irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Trompeta o equivalente
2.4.14	Klarineteko irakasle titulua edo baliokidea	Título de profesor/a de Clarinete o equivalente
2.5	Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua edo baliokidea	Grado en Ciencias de la Actividad Física y el Deporte o equivalente
3	Batxilerra, teknikari titulua edo baliokidea	Bachiller, título técnico o equivalente
4	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo baliokidea	Título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria o título equivalente
5	B gidabaimena izatea	Estar en posesión del carnet de conducir B
6	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren titulazioagatik gaikuntzen onarpen-taulan jasotako behe tentsioko instalatzaile izateko behar den gutxieneko titulazioa izatea.	Poseer la titulación mínima requerida para la habilitación como instalador de Baja Tensión recogida en la tabla de reconocimiento de habilitaciones por titulación del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco.
7	Ondorengo titulazioak izatea: - Ingelesa: B2 - Frantsesa: B1	Poseer las siguientes titulaciones: -Inglés: B2. - Francés: B1
8	Ondorengo titulazioak izatea: - Ingelesa: B2	Poseer las siguientes titulaciones: -Inglés: B2.
9	Ondorengo titulazioak izatea: - Ingelesa: C1	Poseer las siguientes titulaciones: -Inglés: C1.

5- ORDAINKETA/RETRIBUCIÓN

5.1. LANPOSTU MAILAKO OSAGARRIA/NIVEL COMPLEMENTO DE DESTINO

Funtzionarioak: 1etik 30erako mailak	Funcionarios: Niveles del 1 al 30
--------------------------------------	-----------------------------------

Laboralak: maila asimilatua

Laborales: nivel asimilado

5.2. BERARIAZKO OSAGARRI MAILA/NIVEL COMPLEMENTO ESPECÍFICO

Udalhitzeko ordainsari mailen diferentziarekin kalkulatu da. /Se ha calculado con la diferencia de los niveles retributivos de Udalhitz.

OHARRA: Lanpostu zerrenda honetako lanpostuak baloratzeko daude / NOTA: Los puestos de trabajo incluidos en la presente relación de puestos de trabajo están pendientes de valoración.

6. OHARRAK

1	Gaur egun lanpostu honi dagozkion funtzioak pertsonal laboral batek betetzen ditu	Las funciones propias de este puesto son actualmente desempeñadas por personal laboral
2	Lanaldia urtero aldatuko da, ikastaro bakoitzean matrikulatzen den ikasle kopuruaren arabera	La jornada se modifica anualmente, según el número de alumnos que se matriculan en cada curso.
3	Otsailaren amaieratik azaroa erdialdera arteko kontratua (kanpineko irekiera eta itxiera daten arabera)	Contrato desde finales de febrero hasta mediados de noviembre (dependiendo de las fechas apertura y cierre camping)
4	Martxoaren hasieratik azaroa erdialdera arteko kontratua (kanpineko irekiera eta itxiera daten arabera)	Contrato desde principios de marzo hasta mediados de noviembre (dependiendo de las fechas apertura y cierre camping)
5	Ekainaren 1etik – irailaren 30era arteko kontratua	Contrato del 1 de junio al 30 de septiembre
6	Ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera arteko kontratua (kanpineko beharren arabera)	Contrato desde mediados de junio hasta mediados de septiembre (dependiendo de las necesidades del camping)
7	Uztailaren hasieratik irailaren erdialdera arteko kontratua (kanpineko beharren arabera)	Contrato desde principios de julio hasta mediados de septiembre (dependiendo las necesidades del camping)
8	Ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera arteko kontratua (hondartza denboraldiaren arabera)	Contrato desde mediados de junio hasta mediados de septiembre (dependiendo de la temporada de playa)



2. ERANSKINA

UDALAREN HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

2024ko martxoa

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 dekretuak arautzen ditu HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK. Orioko Udalak, hizkuntza-irizpide hauek lantzeko, aintzat hartu ditu dekretu horretakoak eta UEMAREN irizpide nagusiak.

Udalak hizkuntza-irizpide hauek aplikatuko ditu 2023-2027 plangintzaldian, eta indarrean segituko dute, berriaz berrikusi eta aldatzea erabakitzen ez duen bitartean.

HIZKUNTZA-IRIZPIDEEN PRINTZIBIO GIDARIAK

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 dekretuaren edukiekin bat etorriz, hauek dira Orioko Udalak aplikatuko dituen hizkuntza-irizpideen zazpi printzipio gidariak:

- 1 Euskararen erabilera normala eta orokorra.** Euskara izango da erabilera normal eta orokorreko hizkuntza Udalaren jardueretan, bai ahoz eta bai idatziz, herritarrei zerbitzua ematerakoan zein barruko lanetan.
- 2 Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.** Herritarrek eskubidea dute Udalarekiko harremana haiek hautatutako hizkuntzan izateko eta Udalak eskubide hori bermatuko die.
- 3 Ekintza positiboaren printzipioa.** Kontuan hartuta euskararen minorizazio-egoera, Udalak euskararen aldeko ekintza positiboak bultzatuko ditu eta neurriak hartuko ditu euskararen erabilera mugatzen duten oztopoak ezabatzeke.
- 4 Hizkuntza-aniztasuna sustatzea.** Udalak herritarren artean gero eta nabarmenagoa den hizkuntza-aniztasuna sustatuko du, betiere euskararen zentralitatetik abiatuta.
- 5 Atzerapausorik ez.** Udalak ez du atzerapausorik emango hizkuntza-irizpideen inplementazioan: euskara gero eta gehiago erabiltzeko xedea izango du Udalaren hizkuntza-politikak.
- 6 Euskarak lehentasuna.** Euskarari lehentasuna emango dio Udalak, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan. Komunikazioa ele bietan egin behar denean ere lehentasuna emango dio euskarari.
- 7 Hizkera inklusiboa.** Hizkera inklusiboa eta ez-baztertzaila erabiliko du Udalak.

LEGE-OINARRIA

Orioko Udalaren hizkuntza-irizpideak lege hauen edukietan oinarritzen dira:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992ko azaroaren 5koa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
- 179/2019 dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 19/2024 dekretua, otsailaren 22koa, euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

1 KUDEAKETA

1.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Udalaren aginte-organoetan eta sailetan hizkuntza-kudeaketa zeharkakotasunez landuko da eta, beraz, departamentu bakoitzari dagokio bere ardurapeko gaietan Udalaren irizpideak aplikatzea eta betetzen direla bermatzea.

Nolanahi ere, Udalak jarraipen-batzorde bat izango du, hizkuntza-irizpideen jarraipen orokorra egiteko eta erabilera-plana kudeatzeko.

Lantalde tekniko bat ere egongo da jarraipen zehatzagoa egiteko, euskara-teknikariak, euskara-zinegotziak eta UEMAko teknikari batek osatuko dutena.

1.2 LIDERGOA

Ordezkaritza politikoen ardura izango da, azken batean, Udalaren jardura guztietan hizkuntza-irizpideak zuzen aplikatzen direla zaintzea. Udalaren hizkuntza-irizpideak

aplikatzerakoan, udal-ordezkarriak eredugarriak eta koherenteak izango dira, eta euskararen aldeko jarrera proaktiboa izango dute herritarrekin, beste erakunde publikoekin edo entitate pribatuekin. Horretarako, UEMAren aholkularitza eta laguntza izango dute.

Udalak kexaren bat jasotzen badu hizkuntzaren erabileragatik, kexa hori lantalde teknikoari bideratuko zaio eta hark emango dio herritarrari Udalaren hizkuntza-irizpideen araberako erantzuna.

Udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die Udalak euskaraz lan egiten duela eta konpromisoa eskatuko die hauteskunde-zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak elebidunak izan daitezen.

1.3 LANGILEAK

Udal-langileek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar dituzte eta Udalaren hizkuntza-irizpideak bete.

Hori bermatzeko, harrera linguistikoa egingo die Euskara Zerbitzuak langile berri guztiei, Udalaren hizkuntza-politika azaldu eta hizkuntza-irizpide hauen berri hasieratik izan dezaten.

1.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA

Udalaren helburua izango da Udaleko langile guztiek lana euskaraz egiteko gaitasun gero eta hobe izatea.

Lanpostu-zerrendako lanpostuek hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data ezarrita izango dituzte. Udalean lanpostu berri bat sortu aurretik Euskara Zerbitzuari jakinaraziko zaio, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizunari buruzko iritzia eman dezan. Ondoren, HPSren txosten ez-loteslea ere eskatu beharko du Udalak.

Langileen kontratazioa

Aldi baterako langileren bat kontratatu behar izanez gero, Udalak lanpostu-zerrendako tankera bereko langileei exijitzen dien hizkuntza-eskakizunaren pareko euskara-gaitasuna eskatuko dio eta langile-gaiak lanean hasi baino lehen egiaztatu beharko du.

Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu baterako plaza bat ateratzen bada deialdira, hautagaiek hizkuntza-eskakizun hori bete beharko dute lanposturako irispidea izateko.

Edozein lanpostu berri legez hornitzeko, dagokion hizkuntza-eskakizunari igarotako derrigortasun-data ezarriko dio Udalak, langileak lanean hasi baino lehen egiaztatua izan dezan.

Lan-kontratuak euskaraz sinatuko ditu Udalak.

Hautaprobak

Udal-lanpostuetako hautaketa-proben deialdietan, epaimahaikideak izendatzerakoan, kontuan hartu beharko da haien hizkuntza-gaitasuna.

Hautaketa-prozesuan, Udalak probetako bat, gutxienez, euskaraz egitea eskatuko die hautagaiei.

Hizkuntza-prestakuntza

Beharren arabera, Udalak erraztasunak emango dizkie langileei, hizkuntza-prestakuntza egokia jasotzeko.

Udalak, plangintzaldian zehar, hizkuntza-prestakuntza emateko ikastaro eta saioak antolatuko ditu berariaz udal-langileentzat, UEMArekin laguntzarekin, etengabe eguneratzeko aukera izan dezaten.

1.5 ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Udalak euskararen erabilera sustatzeko estrategia komunikatuko die langileei eta herritarrei, bere jardunaren komunikaziorako erabiltzen dituen kanalen bidez. Era berean, Udalak saiaturiko da udal-politikariek eta langileek parte hartu dezaten gaiari buruzko foro eta jardunaldietan, gaiari zentralitatea emateko eta egindako ahalegina nabarmentzeko.

Udalak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta bereak konpartitzeko ekimenetan parte hartuko du.

1.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Udalak hizkuntza-klausulak ezarriko ditu egiten dituen kontratu guztietan: zerbitzu-enprekin egindakoetan, hornitzaileekin egindakoetan... eta jarraipena egingo zaio klausula horien betetze-mailari.

Kontratuak euskaraz sinatuko dira.

Kontratazio administratiboak

Kontratazio-espedientearen tramiteetako bat izango da hizkuntza-klausulak egoki ezarrita daudela egiaztatzea; lan hori euskara-teknikariak egingo du, txosten baten bitartez.

Udalak sinatzen dituen kontratuak haxe bermatu beharko dute:

- Herritarrak artatuak izan daitezela haiek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean.

- Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, Udalak ezarritako irizpideen arabera.

Herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, haxe bermatuko da: enpresa adjudikaziodunak Udalaren hizkuntza-irizpideak bete beharko ditu zerbitzua ematerakoan. Bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu lanpostuetan. Kontu hori kontratuko baldintza administratibo partikularren agirietan jasoko da.

Obra-kontratuetan adjudikaziodunak euskarazko seinaleak eta oharrak jarri beharko ditu, Udalarekin aurrez adostuta.

Hirugarrenei eskatutako azterlanak, proiektuak eta antzekoak euskaraz idatzita aurkeztea eskatuko du Udalak. Eskakizun hori baldintza-agirietan jasoko da.

Kontratu txikiei dagokienez, kontratazio horren beharra arrazoitze txostena egiten denean, hizkuntza-baldintzak ere aurreikusiko dira, ondoren formalizatuko den kontratuan txertatzeko.

Dirulaguntzak eta hitzarmenak

Udalak pertsona fisiko eta juridikoekin sinatutako hitzarmenak euskaraz idatziko dira.

Hitzarmenaren edukiaren arabera, euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza-klausulak sartuko dira.

Diruz lagundutako jarduerak berekin dakarrenean herritar multzo zehaztugabe batekin edukitzea zuzeneko harremana, euskararen erabilera bermatuko da.

Diruz lagundutako jardueran komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, euskaraz egingo dira. Era berean, dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik eratorri daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatzen bada, euskaraz izango da, arrazoitutako salbuespenak izan ezik. Nolanahi ere, haur eta gazteentzat egiten diren jarduerak euskaraz egingo dira beti.

Hirigintzako baimenak

Udalak hirigintzako baimenen bat eman behar duenean, kale eta bide publikoetako iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan euskara erabiltzeko baldintza jarriko die.

Indarrean dagoen terrazen ordenantzaren arabera, lurzoru publikoa okupatzen duten establezimenduak behartuta daude jendaurrean jartzen dituzten errotulu, ohar edo arbelak euskaraz jartzera.

Establezimendua irekitzeko tramitea

Establezimendu berri bat irekitzeko tramitearen barruan Udalak errotulazioa euskaraz jartzeko gomendatuko dio eskatzaileari, eta horretarako eskura dauzkan laguntzen berri emango dio.

Udalaren instalazioak erabiltzeko baimenak

Udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena eskatzen den kasuetan, ekitaldi horiei lotutako idatzizko euskarriak (kartelak, iragarkiak, oharrak...) euskaraz egingo dira.

Jaietako postuak eta azokakoak

Jaiak eta azokak direla-eta postua jartzeko baimen-eske datozenei prezioak, errotuluak eta oharrak euskaraz jartzeko gomendatuko die Udalak, eta Euskara Zerbitzuaren laguntza eskainiko die horretarako.

2 EUSKARAREN ERABILERA

2.1 ERAKUNDEAREN IRUDIA

Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

Udal-instalazioetan Udalak euskara sustatzen duela adierazten duten elementuak jarriko ditu agerian, hala adieraztea beharrezkoa ikusten denean.

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorretan euskara erabiliko da. Legez gaztelaniaz ere idatzi behar diren kasuetan, euskarari lehentasuna emango zaio.

Udaleko gutun-azalak, orriak, zigiluak eta abar euskaraz egongo dira. Egutegiak eta horma-irudiak ere euskaraz egongo dira. Udal-ibilgailu, jantzi, altzari eta bestelako elementuak euskaraz errotulatuko dira.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuetan euskara erabiliko da beti: igogailuak, ate automatikoetako ahozko oharrak...

Udalak sustatutako ikus-entzunezko materiala euskaraz izango da.

Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-kontuak

Udalaren argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta gainerakoak euskaraz prestatu eta argitaratuko dira. Aukera dagoenean, hizkuntzaren teknologia berriak erabiliko ditu Udalak, hala nahi duten herritarrek aukera izan dezaten edukiak gaztelaniaz edo beste hizkuntza batzuetan jasotzeko.

Arreta jarriko zaio Udaleko agirietan hizkuntza-kalitatea zaintzeari, komunikagarritasuna errazteko. Udalak kontuan hartu beharko du beti agiriaren hartzailea nor den, eta horretara egokitu. Agiriek argiak eta ulergarriak izan behar dute.

Jendaurreko ekitaldiak

Ekitaldi publikoetan edota prentsaurrekoetan Udalak euskara erabiliko du beti. Ahal denean, hizkuntzaren teknologia berriak erabiliko ditu mezuak euskaraz ez dakitenengana iristeko: Telegram kanalen bidezko itzulpenak, bat-bateko itzulpen automatizatuak...

Webgunea eta sare sozialak

Udalaren webgunea euskara hutsez elikatuko du Udalak. Nolanahi ere, webguneko edukiak beste sei hizkuntzatan kontsultatzeko aukera izango dute herritarrek, Elhuyarren Elia itzultzaile neuronalaren bidez.

Beste webgune batzuetarako estekek euskarazko atarietara eramango gaituztela bermatuko da.

Udalak euskaraz elikatuko ditu bere sare sozialak, salbu-eta beste hizkuntzaren batean egindako galdera edo komentarioei erantzuteko.

Udalak informazioa zabaltzeko plazan eta hondartzan instalatuta dauzkan panel digitalak ere euskaraz elikatuko ditu, turismo-informazioari lotuta izan daitezkeen salbuespenak izan ezik.

2.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK

Ahozko harremanak

Udalak euskara erabiliko du herritarrekiko ahozko harremanetan, herritarrak arreta gaztelaniaz nahi duela berariaz adierazten ez badu.

Idatzizko harremanak

Udalak euskara erabiliko du herritarrekiko idatzizko harremanetan, herritarrak arreta gaztelaniaz nahi duela berariaz adierazten ez badu. Herritarrek euskaraz egindako eskaerei Udalak euskaraz erantzungo die beti.

Herritarrek betetzeko eskura dituzten inprimakiak bi bertsiotan izango ditu Udalak: euskaraz eta ele bitan.

Harrerako lehen hitza

Udalaren harrerako lehen hitza euskaraz izango da. Ondoren, herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan emango zaio arreta.

2.3 BARNE-HARREMANAK ETA LAN-TRESNAK

Langileen arteko komunikazioa

Telefonoz eta aurrez aurre lehenengo hitza euskaraz egingo dute udal-langileek.

Langileen arteko informazio-trukeak eta horretarako erabiltzen dituzten tresnak (posta-zerrenda, oharrak eta abar) euskaraz izango dira eta hala erabiliko dituzte langileek.

Herritarren hizkuntza-ohituretan eragin handia dauka udal-langileek beren artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udalean entzuten den hizkuntza Udalaren irudia ere bada. Hori dela eta, udal-langileek lanorduetan beren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du Udalak.

Lan-bilerak

Udaleko bilerak (batzordekoak, udalbatzarrekoak, bestelakoak...) euskaraz izango dira, eta hala egingo dira horien deialdiak eta aktak ere.

Erakundearen barne-harremanetarako idatziak

Erakundearen barruko harreman idatziak euskaraz izango dira.

Eskritura publikoak

Udalak euskaraz idatziko ditu eskritura publikoak, eta haien inskripzioa ere euskaraz egingo du dagokion erregistroetan.

Araudi orokorrak

Ordenantzak eta antzeko araudi orokorrak tramitatzeko urratsak euskaraz abiaraziko dira.

2.4 KANPO-HARREMANAK

Euskal Herriko administrazioekiko ahozko eta idatzizko harremanak

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskaraz izango dira ahozko eta idatzizko harremanak. Haiei zuzendu beharreko dokumentazioan euskara bakarrik erabiliko da, eta berengandik gutxienez euskaraz jasotzea eskatuko zaie.

EAEko lurralde esparruan kokatutako estatuaren eta haren mendeko administrazioekiko komunikazio administratiboak ere euskaraz izango dira.

Erakunde pribatuekiko ahozko eta idatzizko harremanak

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta hala jarraituko du, solaskideak gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Erakunde pribatuetarako bidaltzeko agirien kasuan euskara erabiliko da beti: jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...

Beste entitateekiko ahozko eta idatzizko harremanak

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean hizketan ari denak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta hala jarraituko du, solaskideak gaztelaniaz egin nahi duela adierazten ez badu.

Bestelako entitateetarako agiriaren kasuan euskara erabiliko da beti: jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...

2.5 PRESTAKUNTZA

Udalak berak antolatzen dituen prestakuntza-jarduerak euskaraz izango dira.

Udal-langileek kanpo-erakunderen batek antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartu behar badute, Udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko du zuzenean erakunde horrekin harremanetan jarritz.

Ikastaroen jarraipena egingo da, eta gaztelaniaz bakarrik antolatzen dituzten erakundeei Udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko die, zuzenean harremanetan jarritz.

2.6 BALIABIDE INFORMATIKOAK

Langileei tresna edo aplikazio informatikoak eskura jartzerakoan, Udalak euskarazko bertsioa jarriko die eta euskarazko nabigazioa lehenesteko moduan jarriko dira ezarpenak.

IZFEren aplikazioak euskaraz erabiliko dituzte beti udal-langileek.

Horrez gain, Udalak langileen eskura jarriko ditu itzulpen neuronaleko tresnak, euskaraz sortutako testuak gaztelaniara eta beste hizkuntzetara automatikoki itzuli ahal izateko.

Aplikazio informatikoak kontratatu edo garatu behar badira, euskarazko bertsioa dutenak lehenetsiko ditu Udalak. Administrazio-jarduera automatizatuko sistemak nahiz bestelako aplikazioak diseinatzen direnean, euskara izango da lehen hizkuntza, erantzuteko eta kontsultak egiteko.

2.7 SORTZE-HIZKUNTZA

Udal-langileek euskaraz sortuko dituzte beren lanaren inguruko dokumentu guztiak eta, beste hizkuntzaren batean ere behar denean, itzultzaile neuronal baliatuko dute itzulpena egiteko. Herritar bati itzultzaile neuronalaz egindako itzulpena zuzendu gabe ematen zaionean, ur-marka bat jarriko zaio dokumentuari, honela dioena: «Agiri hau automatikoki itzulia da, euskarazko originaletik, eta akats txikiak izan ditzake / Texto traducido automáticamente del original en euskera. Puede contener pequeños errores».

ITZULPEN-IRIZPIDEAK

- Udal-langileek euskaraz sortuko dituzte beren laneko testuak eta beren ardura izango da horien hizkuntza-kalitatea zaintzea.
- EUSKARAZ HOBETO! erabilera-planaren arabera, Orioko Udalak euskaraz egingo du lan nagusiki eta irizpide hauek aplikatuko ditu zer itzuli eta zer ez erabakitzeko:
 - Euskara ofiziala duten erakunde publikoetara bidali beharreko testuak (Eusko Jaurlaritzara, udaletara, Arartekora etab.) euskara hutsean bidaliko dira, gaztelaniara itzuli gabe.
 - Herritarrei bidali beharreko testuak ere, orokorrean, euskaraz bidaliko dira, itzuli gabe. Hala ere, herritarrak eskatzen badu, gaztelaniazko itzulpena ere emango zaio. Horretarako, itzultzaile neuronalak erabiliko dute langileek. Horrela egindako itzulpenari ur-marka bat jarriko zaio, honela dioena: «Agiri hau automatikoki itzulia da, euskarazko originaletik, eta akats txikiak izan ditzake / Texto traducido automáticamente del original en euskera. Puede contener pequeños errores».
 - Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira bidali beharreko testuak euskaraz eta gaztelaniaz bidaliko dira eta, beraz, itzuli egin beharko dira.
- Itzuli beharreko testu arruntak langileak berak itzuliko ditu itzultzaile neuronalaren bidez, eta bere ardura izango da itzulpenaren kalitatea zaintzea, hala behar denean.
- Tarteka tokatzen da ezohiko itzulpenak egin behar izatea: luzeak, oso presakoak edota ezaugarri bereziak dituztenak. Halakoetan, banan-banan aztertuko da ea langileak egiteko modukoak diren, Euskara Zerbitzuak egin behar dituen ala kanpoko enpresaren bati eman behar zaizkion.
- Kontratazioak egiterakoan, departamentu bakoitzak aurreikusi behar du kontratatutako enpresek itzulpen-premiak izango dituzten. Euskara Zerbitzuak ez du egingo kontratatutako enpresei dagokien itzulpen-lana.

ZUZENKETA-LANAK

- Testu bereziki bihurriak edo zailak idazterakoan edo garrantzi berezia duten testuen zuzenketa egiteko, Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu dezakete langileek. Zabalpen handia izango duten testuak ere (webgunean argitaratzekoak, eskuorri edo aldizkarietan publikatzekoak, prentsa-oharrak eta abar), komeni da Euskara Zerbitzuaren eskutik pasatzea, azken zuzenketa egiteko.

- Txosten, jakinarazpen, baldintza-agiri eta antzekoak idazterakoan, aldeztu aurretik sortuta egon daitezkeen dokumentu-ereduak bilatzeko saiakera egingo du langileak.
- Langileak, testu bat zuzentzera bidali aurretik, kontuan hartu behar ditu arau hauek:
 - Testuaren lehen zuzenketa langileak berak egin behar du. Testu bat zuzentzera bidali baino lehen, irakur dezala, lehenik, idatzi duenak.
 - Erabili lehendik zuzendutako testuak nork bere bilategia osatzeko (baldintza-orriak, antzeko txostenak, dekretuak...) eta gero eta autonomia handiagoa izateko.
 - Ez bidali bere horretan zuzentzera iturri askotatik kopiatu eta itsatsitako zatiz osatutako testuak. Testugileak eman behar dio forma testuari. Bidali aurretik, ondo irakurri eta orraztu testua.
 - Testuan arau, lege, ordenantza edo antzekoen zatiak txertatu behar badira, begiratu ea euskaraz ere argitaratuta dauden, asko baitaude itzulita. Ez da egokia arau edo arau-zatiak itzultzaile neuronalean itzultzea. Legeren bat euskaratuta ez badago, gaztelaniazko bertsioetik kopiatu behar da, komatxo artean jarrita.
 - Zuzentzeko bidaltzen den testua izan dadila azken bertsioa, behin betikoa.

EUSKARA ETA GENERO-IKUSPEGIA

Euskarak ez du genero-markarik eta, beraz, eman lezake libre dagoela gaztelaniak eta gure inguruko hizkuntza gehienek generoaren inguruan azken urteotan izan dituzten eztabaidetatik. Egia da eztabaida horietako askok ez dutela tokirik euskararen kasuan, hizkuntzaren tipologia desberdina delako, baina, nolanahi ere, komeni da aholku batzuk ematea Udalaren testuetan genero-ikuspegia txertatzeko eta hizkuntzaren erabilera sexistarik ez egiteko.

- **Ez ekarri gaztelaniaren arazoak euskarara**

Gaztelaniaz, «los migrantes», «los usuarios» eta horrelakoak saihesteko, «las personas migrantes» edo «las personas usuarias» bezalakoak erabiltzen dituzte batzuetan. Ondorioz, euskaraz hasita gaude ikusten «pertsona migratzaileak» edota «pertsona erabiltzaileak» eta horrelakoak. Gurean, horrek ez dauka inolako zentzurik, «migratzaileak» eta «erabiltzaileak» neutroak direlako, berez, euskaraz. Azken horiek dira erabili beharrekoak.

Bestalde, «los/las profesores/as» bezalako «txurroak» saihesteko, «el profesorado» eta holakoak idaztea proposatzen da gaztelaniaz, eta badu zentzua. Euskaraz, ordea, ez dugu zertan «Irakaslegoak greba egingo du» bezalakoak erabili; «Irakasleek greba egingo dute» idatzi eta aurrera. Naturalago eta hobeto.

- **Zuzendari jauna...**

Batzuetan, ez dakigu nor den gure gutuna jasoko duena eta, halakoetan, oso desagokia da gutuna «Zuzendari jauna...» bezalakoekin hastea.

Egokiena, beti, ikerketa pixka bat egin eta kontua argitzea da, jakina; baina, ezinezkoa bazaigu, euskarak baditu bestelako formula inklusiboagoak: «Lagun hori...», Zuzendari hori...» edo, besterik ezean, «Jaun-Andre hori...».

- **«Gizaki» eta «gizarte» dira termino orokorrak**

Tradizioan eta literaturan «gizona» hitza erabili da, askotan, gizonak eta emakumeak izendatzeko:

«Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia...

(Xabier Leteren «Izarren hautsa» abestia)..

Erabilera hori ez da egokia gaurko egunerako eta, horren partez, askoz txukunago da «gizaki» erabiltzea.

Batzuek «gizaki» eta are «gizarte» ere desagokitzen jo izan dituzte (azken honentzat «jendarte» proposatu dute), biek ere «gizon» hitza dutelako oinarrian; baina eztabaida

hori gaindituta dago gaur egun eta erabilera arrunteko terminotzat hartzen dira bi-biak. Lasai erabiltzekoak dira, beraz.

- **«Lege-gizon», ez: «legelari»**

Tradizio luzea dute euskaraz «gizon» hitzarekin osatutako hitz konposatuak: legegizona, enpresa-gizona, industria-gizona, kultur gizona, plazagizona, itsasgizona...

Gaur egungo gizartean erabiltzeko, ordea, desegokiak dira eta hobe da termino inklusiboagoak erabiltzea: legelaria, enpresaria, industrialaria, kultur-pertsona, plaza-pertsona, itsas-langile edo marinela...

Gauza bera esan daiteke «anaitasun» hitzari buruz ere. Gaur egungo testuinguruan, egokiago da, horren partez, «senidetasun» jatorra erabiltzea. Zer esanik ez, «aitak», «semeak», «anaiak» edota «erregeak» ezin dira erabili euskaraz zentzu orokorra dutenean; horrelakoetan: «gurasoak», seme-alabak», «anai-arrebak» edota «errege-erreginak» dira erabiltzekoak.

- **«Alkatea» eta ez «alkatesa»**

«Alkate» hitzak ez du generorik euskaraz eta, beraz, erabilera orokorrekoa da, bai gizonekin eta bai emakumeekin. Desegokia da, beraz, «alkatesa» erabiltzea.

- **«Udal-brigadak langileak behar ditu, gizon eta emakumeak»**

Batzuetan, komeni da generoa markatzea, goiko adibidean bezala. Lan batzuk oso lotuta ikusten ditugu genero jakin bateko pertsonekin: brigadako langileak gizonak dira gure buruan, eta erizainak, emakumeak. Halako kasuetan, estereotipoak saihesteko, komenigarri izan daiteke batzuetan generoaren aipamena berariaz egitea.

- **Berdintasunean izendatu gizonak eta emakumeak**

Ikusita dauzkagu horrelako tituluak: «Orioko traineruak Kontxa irabazi du!» (mutilen traineruari buruz ari da, jakina; baina ez da aipatu beharrik ikusi). Kasu horietan, beti aipatu behar da generoa: «Orioko mutilen (edo nesken) traineruak Kontxa irabazi du!»

OHARRA

Hizkuntza-irizpide hauek euskararen erabilera dute ardatz; beraz «euskaraz egongo da», «euskara erabiliko da», «euskaraz jarriko da» edo antzekoak esaten direnean, ez da baztertzen beste hizkuntzaren bat ere erabiltzea. Nolanahi ere, Udalaren helburua euskararen normalizazioa denez, herritarren eskubideak bermatzeko legediak eskatzen duen kasuetan erabiliko du gaztelania, beti euskararekin batera.